BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

145

279/2011 DEKRETUA, abenduaren 27koa, zeinen bidez Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca erakunde publikoari baimena ematen baitzaio, EITBNET SA sozietate anonimo publikoaren kapital-zabalkuntzan parte hartzeko.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 6ko 2/2007 Legegintza Dekretuak honako hau ezartzen du 110. artikuluan: enpresa-ondarea osatzen duten ondasunak eta eskubideak eskuratzeko, aurretiaz, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena beharko da, dekretu bidez emana, eta horretarako proposamena, berriz, ondareari buruzko eskumenak dituen saileko buruak eta, zuzenean nahiz bitarteko erakunde baten bidez, sozietatea loturik duen edo loturik izango duen saileko buruak egin beharko dute, biek batera. Dekretua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta ematen den egunetik aurrera izango du eragina.

Baltzuaren estatutuen arabera, hauxe da haren helburua: informazioaren gizartearentzako edukiak ekoitzi, erreproduzitu, argitaratu, erosi, merkatuan saldu eta ustiatu eta banatzea, bereziki zerbitzu- eta komunikazio-euskarri berrietarako elkarreragileak eta multimediakoak eta sarekoak; euskarri berrietan, hau da, gaur egungo telebista digitala, teletestu, internet, telefonia mugikor eta etorkizunean garapen teknologikoek gauzatzen dituzten komunikazio- eta zerbitzu-kanalak martxan jarri eta mantentzea; arlo horretako berrikuntza-proiektuetan zentro teknologikoekin elkarlanean aritzea; euskal ikus-entzunezkoen sektorearen garapena eta beste merkatu batzuetara hedatzea sustatzeko, enpresa-proiektu eta -aliantza estrategikoetan parte hartzea.

EITBNET SA sozietate anonimo publikoak 2011ko azaroaren 14an egindako Batzar Orokor Unibertsal Ezohikoan, honako erabaki hau hartu zuen: kapital soziala hirurogeita hamar mila eurotan (70.000) gehitzea; eta, horretarako, hamar euroko (10) balio nominala duten zazpi mila (7.000) akzio berri jaulkitzea, hurrenez hurren 77.192tik 84.191ra zenbakituak, biak barne.

Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca erakunde publikoa da aipatu erakundearen akziodun bakarra; horrenbestez, sozietate horretan bazkide izateari dagozkion eskubideez baliatuko da, akzio berriak eskuratzeari buruzko erabakia hartzeko. Halaber, lehenengo paragrafoan azaldutakoarekin bat, Jaurlaritzaren Kontseiluaren baimena behar da akzio berriak eskuratzeko.

Lehendakariaren maiatzaren 8ko 4/2009 Dekretuaren 15.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca zuzenbide pribatuko erakunde publikoa Kultura Sailari atxikita dago.

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren eta Kulturako sailburuaren proposamenez, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko abenduaren 27an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca erakunde publikoari baimena ematea EITBNET SA sozietate anonimo publikoaren kapital-zabalkuntzan parte hartzeko. Zabalkuntza hori hirurogeita hamar mila (70.000) eurokoa da, eta hamar (10) euroko balio nominaleko zazpi mila (7.000) akzio berriko jaulkipenaz egingo da.

Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca erakunde publikoak zabalkuntzaren % 100ean parte hartuko du. Hortaz, aipatutako kapital-zabalkuntzaren ondoren, Euskal Irrati Telebista / Radio Televisión Vasca erakundente publikoak honako parte-hartzea izango du: zortziehun eta berrogeita bat mila bederatziehun eta hamar (841.910) eurokoa, laurogeita lau mila ehun eta laurogeita hamaika (84.191) akziotan banatuta, bakoitzak hamar euroko (10) balioa duela. Hau da, sozietatearen etorkizuneko kapitalaren % 100ari dagokion parte-hartzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek onartzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 27an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.